

Inori obeditu gabe, garatuz doa desobedientzia

400 bat pertsonako herri harresi koloretsuak babestu berri ditu bost gazte Loiolako basilikaren aurrean. Espainiako Auzitegi Nazionalak hauek atxilotzeko agindua emana zuen goiz hartan bertan, orotara 28 gazteren aurka abiatutako epaiketa arbuiatu eta Madrilera joateari uko egin ostean. Prozesu judizialak iraun bitartean kartzelan edukiko dituzte bost gazteak. Herri harresiaren mugimenduak aldagai berriak gehitu ditu ekuazioan, auzipetuekiko identifikazio kolektiboa edo epaiketa bera tenkatzea, besteak beste. Bada azterketarako elementurik.

| LANDER ARBELAITZ / AXIER LOPEZ |

LOIOLAN gelditu dira Xabier Arina, Jazint Ramirez, Igarki Robles, Irati Tobar eta Imanol Salinas. “Herri harresien dinamika da egun Euskal Herriko desobedientzia dinamikarik masiboena”. 200 gazte inguru arretaz ari dira entzuten Julio Villanuevaren hitzak, Loiolako basilikaren aurrean. Desobedientzia zibilari emandako bizitza da Villanuevarena, eta borroka molde honi buruzko gogoetak partekatu ditu bost gazteak babesteko antolatutako AskeGuneko hitzaldian.

“Legea eta justiziaren artean hautatzera behartzen bagaituzte, gu justiziarekin lerratzen gara”, adierazi zuten Gernikan auzipetuek. Espainiako Estatuan bi ideien artean hautua egin beharra azpimarratzen du eskubide zibilen aldeko mugimendu honek. Epaike-ta politikoen aurrean desobedientzia zibilaren bidean sakontzea bilatzen du, noizbait, hauek gertatzea helburu jarrita. Eleak mugimenduak emandako datuen arabera, 200 bat euskal herritar daude epaituak izateko zain.

Espainian “demokrazia birsortzeaz” hitz egiten duten garaiotan, kazetari espainiarrei ez zaizkie

beren irakurleentzat interesgarri iruditu Guardia Zibilak egindako torturak. Berbarako, hurrenez hurren *Gara* eta *Berria* egunkarietako Alberto Pradilla eta Hodei Iruretagoiena izan dira Espainiako Auzitegi Nazionalen auzipetuen lekukotzak jaso dituzten kazetari bakarrak. Sare sozialetan aldiz borbora bezala zabaldu da *#EnEspaña-SeTortura* baieztapena, espainiar estatuan elkartasun mezu andana eraginez.

400 beharrean, 2.000 edo 5.000 pertsona egon izan balira, zer gertatuko zatekeen? Kuantitatiboki, zein muga gainditu behar ditu herri harresiak operazio polizialak porrot egin eta krisi politiko bat eragiteko?

Atxilotetaren irudiak bai, horien korte azkar bat ikusi ahal izan du Espainian albistegia ikusi duenak. ETBk eta espainiar estatuko heda-

bide gehienek ertzain bat zauritu dela nabarmendu dute. Eusko Jaur-laritzako bozeramaile Josu Erkorekak, operazioaren balorazio “positiboa” egin du, eta Ertzaintzaren jarrera “proportzionatua” izan dela adierazi du. Ertzaintzak atxilotutako bi pertsonak “operazioan parte hartzen ari ziren ertzainen aurkako erasoengatik” izan zirela adierazi du Seguritasun sailburu Estefania Beltran de Herediak. Gerora, Ertzaintzak akusazioa kendu die, irudietan halakorik ez zela gertatu ikusi ostean. Bestetik, erizain bolondresen dozenaka lagun hartatu behar izan zituzten kolpe eta borrakadek eraginda.

Desobedientzia zibila Loiolan

Herri harresien dinamika desobedientea garatzen doa. Aldagai berriak erabili dituzte Loiolan ere. Batetik, epai finkoa eman aurretik ere, epaike-tari berari zilegitasuna ukatzeko ekimen gisa planteatu dute Loiolakoa. Bestetik, identifikazio kolektiboa landu dute harresiko kide eta auziperatuen artean. Horretarako, maskara laranja berdinak erabili dituzte guztiek; aldean nortasun agiririk eraman gabe eta paparrean auzi-





Ertzaintzarentzat auziperatuak identifikatzea zailtzeaz gain, ezohiko irudia utzi zuen Loiolako herri harresiak.

peratuak zirela zioten agiriak jarri zituzten elkartasuna adieraztera joandakoek.

Eskubide zibil eta politikoak aldarrikatu zituzten jendarte osoarentzat. “Gu zuek gara, zuek gu zarete” izeneko gogoeta argitaratu dute AskeGunearen webgunean.

“Desobedientzia pertsonala oso ongi dago, baina eragina izateko, ikusgarritasuna, jendetza mugitzea garrantzitsua da, argi gera dadin dinamikak babes soziala daukala, herri harresien gisa”. Loiolako AskeGunean antolatutako lehen hitzaldian esandakoak ongi islatuko du ondoren bizitako eguna.

“Orain 18 bat urteko egoerarekin konparatuz, egungoa oso errepresiboa da, estatua zigor kodea ikaragarri gogortzen ari da”. Julio Villanuevaren hitzek herri harresietan parte hartzeagatik zigortutako kideen aurkako ekinbideak aurri-kusten ditu. “Errepresio ekonomikoari” aurre egiten hasi beharra azpimarratu du, besteak beste.

Loiolako AskeGunea hustu eta bi egunera Ondarroako zubi harresian parte hartzeagatik bost herri-tar epaitzen hasi dira Bilbon. Agenteen aurka biolentzia erabiltzea akusatzen diete eta hauek

halakorik ukatzen dute. Eusko Jaurlaritzak epaiketa politikoen aurka dagoela esan arren, eurek abiatutako prozesua dela salatu du Eleak mugimenduak epaitegi kanpoaldean babesa adierazteko egin-dako kontzentrazioan.

24 orduz hainbat pertsona babesteak dakarren neke fisiko eta mentalaz gain, administrazioak abiatutako zigorrak jendearen erantzunean eragin negatiboa izango ote duen kezka adierazi du hainbat-tek. Pentsatzekoa da bertaratzen direnak herri harresietan Ertzaintzak izandako jarrera gogorraz jakitun direla.

Loiolakoa laugarren AskeGunea izan da eta 400 bat lagun bildu dira atxiloketa agindua eman duten arratsaldean bertan. Donostian, Ondarroan eta Iruñean ikusitako aurpegi asko errepikatu dira, kolpeak jasotzeaz gain, gaua komisaldetan emateko arriskua hartzeko prest.

Galdera batzuk bidea marrazten jarraitzeko

Instituzioen eta alderdi politikoen mugak agerian geratu diren garaio-tan, zein leku har dezake desobedientziak egungo Euskal Herrian?

Nolako kontraesanak utzi ditu agerian dinamika desobediente honek ezker abertzalearen teoria eta praktikaren artean?

Tentsiorik sortu al du politika instituzionalaren eta herri mugimenduaren artean?

Herri harresia gai izango al da izaera ez alderdikoiari eusteko eta gizarteko sektore zabalagoak biltzeko?

Maiatzean hauteskundeak izango dira. Gai izango al da herri harresien mugimendua, unea baliatu eta epaiketa politikoen gaia mahai-gai-nearn jarritz alderdien konpromisoak lortzeko?

Zenbaterainoko apustua egin beharko du epaiketa politikoe-kin amaitu nahi duen sektoreak? Auziperatuak babesten, 400 beharrean, 2.000 edo 5.000 pertsona egon izan balira, zer gertatuko zatekeen? Kuantitatiboki, zein muga gainditu behar ditu herri harresiak operazio polizialak porrot egin eta krisi poli-tiko bat eragiteko? ■

argia.com Loiolako herri harresiari zuzeneko jarraipena egin genion. Bideo eta argazki guztiak, webgunean dauzkazue ikusgai.

